



Ostiralean hasiko dira jaiak. Egitarau osoa Agenda atalean eta egunez eguneko irudiak eta bideoak aiurri.eus webgunean

Aldagai ekonomikoak hobetuz doaz Andoaingo udaletxean

Udalak eskuartean dituen datu ekonomikoen berri eman du.

Udal gobernu taldeak auzoz auzoko bileretan etorkizuneko egitasmoak agertzeaz gain, aldagai ekonomikoen datuak eskaini ditu. Parte hartze prozesua amaituta, **Ana Carrere** alkateak eta **Agustin Alberro** zinegotziak asteazken eguerdian datu ekonomiko on horiei buruzko azalpenak eskaini zituzten prentsaren aurrean.

Ana Carrere aurreko agintaldiko egoera zail hura gogoran hartuz hitza hartu zuen: "Aurreko agintaldian askotan azpimarratu izan genuen Udalaren egoera ekonomikoa zaila zela. Neurriak hartzea ezinbestekoa izan zen egoerak okerrera egin ez zezan. Zentzu horretan, egoera ekonomikoari begira pasa behar izan genuen kasik agintaldi osoa. Neurri zuzentzaile horietako askok herritarren egunerokari eragin zieten, baina gaurkoan azpimarratu nahi dugu, jasandako guztiak jasanda, egoera ekonomikoa onbideratzeko norabidean jarri garela".

Frogagiri modura, datu ze-



Ana Carrere alkatea eta Agustin Alberro zinegotzia asteazkeneko agerraldian.

Funtzionamendu gastuak

2009an Udalak jasotako 100 eurotatik 97,6 bideratzen ziren gastu korronte-
ra. Egoera hobetuz doa:

- 2009 100 eurotik 97,6 gastu korronte-
ra.
- 2012 100 eurotik 92 gastu korronte-
ra.
- 2013 100 eurotik 87,8 gastu korronte-
ra.
- 2014 100 eurotik 84,5 gastu korronte-
ra.

Zorra

Inbertsioak egiteko aldagai garrantzitsuak da.

- 2010 zorpetzea: 5.066.168 euro
- 2014 zorpetzea: 3.397.968 euro
- 2015 zorpetzea: 2.819.492 euro

Aurrezki garbia

Udal baliabideekin inbertsioak egin ahal izateko, aurrezki garbiari erreparatzea behar-beharrezkoa da. 2014koa azken hamarkadako datu onena da.

- 2011 -458.412 euro.
- 2012 99.473 euro.
- 2013 864.434 euro.
- 2014 1.992.746 euro.

Gerakina

Altxortegian geratzen den kopurua adierazten du. Azken urteetan altxortegia handituz doa, Udalak emandako datuen arabera.

- 2012 -468.154 euro.
- 2013 -845.633 euro.
- 2014 111.801 euro.
- 2015 765.997 euro.

hatzak eskaini zituen Agustin Alberro zinegotziak (artikulu honetan ikusgai daudenak). Datuak aletzen hasita, gastu korrontea arintzen doala dirudi. Itotze egoera bizi izan zen duela zazpi urte, Udalak jasotako diru guztia gastura bideratzen baitzen. Zorpetzea ere murriztuz doa, eta aurrezki garbia nabarmen handitu da. Inbertsioak egin ahal izateko datu onak dira. Altxortegia ere pixkanaka betez doa, balio negatiboetan egon eta gero.

Carrere alkateak azken urteotako bidean sakontzeko deia luzatu zuen: "Gaur gaurkoz eskuartean ditugun datuak baikor izateko modukoak dira; baina etorkizuna oparoa izan dadin, bidea lantzen jarraitu behar dugu". Udal aurrekontuak aurrera atera izana oso lagungarria izan dela aitortu zuen: "Argi dago gobernu taldeak ardura handia duela Udal jardueraren martxa bermatzeko garaian, baina ardura hori konpartitua ere bada neurri handi batean. Nolanahi ere, aurreko agintaldian faltan bota genuen konplizitate hura agintaldi berriarekin badugula ematen du, eta horrek onuradun bakarra dauka: Andoaingo herritarrak".

Bozkatzeko garaia

Urnietako inbertsio estrategikoen alde bozka emateko epea zabalik izango da, maiatzaren 9ra bitarte. Aurrezpen ekitaldiak egin eta gero, herritarrek hartu behar dute orain erabakia.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Mendi lasterketa Urnietan




Asteburu honetan Urnietan Super H festa eta mendi lasterketa bosgarren edizioa ospatuko dira. San Juan plazaren inguruan burutuko dira larunbateko eta igandeko jarduerak.

[GEHIGARRI BEREZIA]

111AKADEMIA: REN SARIA 2015

Idazle saritua:

Katixa Agirre




Maiatzaren 5ean, ostegunarekin arratsaldeko 19:30etan

Atertu arte itxaron eleberriagatik



Andoaingo Bastero Kulgurgunean.
EKITALDI IREKIA.



OMENALDI EKITALDIA SORABILLAN

Omenaldi sentitua Mikel Goenaga apaizari

Mikel Goenaga apaizak hamabi urte (1984-1996) egin zituen Andoainen apaiza gisa, eta arrasto sakona utzi zuen bertako herritarrengan zein etxean bizi izan zirenen gazteen artean, igandean eskaini

zioten omenaldi ekitaldian frogatu ahal izan zen bezala. Eskuzabala izan zen gehien erabili zen hitza, bera definitzeko orduan, meza eta geroko adierazpen gehienetan.



Mikel Goenaga apaiza.

Erretoretxean **Xabier Laka** artistak egindako plaka bistaratu ekin zitzaion ekitaldiari. Meza heldu zen ondoren. **Manuel Oiartzabal** apaizak sermoian adierazi zuenez, "Mikel Goenaga oso kristau koherente eta zintzoa izan zen, bizitza osoan Jainkoaren predikuak azkenetaraino betetzen saiatu zena".

San Martin eliza lepo bete zuten herritarrek eta lagunak "Xalbadorren heriotzean" kantatu zuten heldu zen omenaldian bizi izan ziren unerik hunkigarrietakoa.

Ondoren, elizaren kanpoaldean, ekitaldi zibilar heldu zioten. Lehenbizi, **Juan Carlos Etxeberriak** bideo grabazioez eta irudiez prestatutako muntaia ikus ahal izan zen.

GIZAKIA HELBURU, SORABILLAN

Mikel gertutik ezagutu zuten pertsona eta elkarteak hitza hartzen joan ziren, bata bestearen segidan. Sorabillako kristau taldeko ordezkari **Lontxo Oiartzabalek** banan bana aurkeztu zituen. Emozioari ezin eutsirik askok, baina Mikelen giza balioak goreski nahi izan zituzten, gizarteko pertsonari behartsuenen alde erakutsi izan zuen mugagabeko eskuabaltasuna zela medio.

Gizakia Helburu egitasmoaren baitan Mikelekin Sorabillako erretoretxean orpoz orpo jardun zuten hezitzaileen izenean, **Patxi Lasa** mintzatu zen: "80ko hamarkadan droga no nahi zebilen Andoainen, eta



Belaunaldi eta izaera ezberdinekoek parte hartu zuten mezan eta omenaldi ekitaldian.

arazo pertsonal eta sozial horrekin kezkatutik, lan bikoitziari ekin zion Mikelek: droga menpekotasuna zuten pertsonen laguntza eta Andoaingo gizarte bizitzaren alde inplikatu zen jendea mugitzea. Mikelen etxea Andoainen erreferentzia gune bilakatu zen, denentzako atea zabalik edukirik: droga edo alkoholaren menpekoak, etxerik gabekoak, arazo psikiatrikoak zituztenak... Egundoko intuizioa zeukan, eta bazekien pertsona bat noiz hartu estu, noiz askatasuna eman.

Baratzean, bigarren eskuko altzariekin... denetik egiten zen proiektuaren aldeko dirua biltzeko. 1990ean etxea barrutik berritzen jardun ostean, etxearen kudeaketa Caritaseko zuzendaritzaren esku geratu zen. Ordura arteko egitasmoa errespetatzeko konpromisoa hartu zuten, baina laster, Mikel arazo bihurtu zen gauzak nahi bezala egin eta desegin nahi zituztenentzat; eta horrela, Mikel Oiartzunera mugitu zuten eta zenbait hezitzaile Trintxerpera edo kalera bidali gintuzten".

PRESO SOZIALEKIN GERTU

Mikelek, 30 urtez eta larunbatero, Martuteneko kartzelarako joan etorria egiteko ohitura hartu zuen, preso sozialak bisitatu eta horien beharrak zeintzuk ziren jakiteko. Horrenbestez, drogen mundua eta Martutene preso gisa ezagutu zuten batzuek ere hurbildu ziren Sorabillako omenaldira. Horietako batek, **Joxe Mari Larrañagak**, biziki eskertu zuen Mikelen laguntza: "Gutako batzuek bizirik baldin bagaude, **Txus Kongil, Iñaki Aldabalde, Balentxi** eta Mikel bezalakoek esker da. Mikelek abegikor hartu gintuen Sorabillako etxean, Gizakia Helburu proiektua egiten ari ginela. Maitasuna emateaz gain, ederki astintzen gintuen pertsona zen. Etxe hartan ez ginen drogazale nazkante batzuk; han pertsonak ginen, etxearen jabeak. Ahotsa eta hitza geneukan, eta etxearen funtzionamendu autonomoan eragile aktiboak bihurtu gintuen".

Pasadizo batekin laburtu zuen Mikelen nortasuna: "Martuteneko kartzelan nengoela, gogoratzen naiz Mikel

astero etortzen zela kartzelara bisitan, eta beti egoten zen edonori laguntzeko prest. Kartzelan sartzen zenean, preso guztiok berarengana jotzen genuen, mila pezeta eskatzera edo laguntza pertsonalaren eske. Baziren presoak ez zeukatenak ezta itxurazko oinetarik jantzeko, eta Mikelek, berak jantzita zeuzkanak ematen zizkien. Behin, oso elegante jantzita azaldu zitzaigun; bada bisitan, bati eta besteari arropa ematen hasi, eta kartzelatik, goitik behera dena aldatuta irten zen! Kartzela zaindariak, haiek bai zeudela seko harrিতa, ez baitzuten tutik ere ulerzen!".

ANDOAINGO GAZTEEN ZUZPERTZAILE

Euria ari zela-eta elizaren atarian burutu behar izan zen ekitaldian zehar, udan kanpaldira zihoazen udalekuetako hezitzaileek ere Mikeli esker ona adierazi nahi izan zioten. Berarekin batera abestu ohi zuten "Sua amaitzean" abestia interpretatu zuten horretarako.

Izaskun Mendizabalek Ando-

Mezan "Xalbadorren heriotzean" kantatu zutenean heldu zen omenaldian bizi izan ziren unerik hunkigarrietakoa

aingo sendotze kristau taldearen izenean hartu zuen hitza. "Ostiralero biltzen ginen Mikelekin, eta pixkanaka kristau komunitate gisa bizitzeko gogo piztu zigun. Bizipen hori uste genuena baino xaloagoa zela erakutsi zigun: eguneroko bizitzan, lantokian, etxean, lagunartean... izan behar genuela kristau. Kristautasuna jarra emankor bat zela, egunero berritzen dena. Hurkoa maitatuz, lagun izanez, barkatzen jakinez, behartsuenen ondoan egonez... izan behar zela kristau. Polita bai, baina baita zaila egitekoa! Mikel zutabe izan zen gure bizitzan, eta beti egongo da guregan".

Eva Pelaezek Askagintza elkartearen Mikelekin jardun zuten Andoaingo gazteek egindako ibilbidea gogoratu zien Sorabillara bertaratutakoei. "Asko ikasi genuen berarekin. Izaera eta jatorri ezberdinetako pertsonak eta gizarte osoa astindu zituen drogak, eta egoera horri erantzunak ematen, arazoak zituztenei izen abizenak jartzen... Aparteko doaiak zituen proposamenak mahairatzeko, zeuden baliabideak aztertzeko, salatu behar zena salatzen... Bazekien agintariak ikusi nahi ez zituzten arazoak begi bistan jartzen, eta behar bazen, bazekien pertsona deserosoa izaten. Berak erakutsi zigun ikasgai polita: egoera deseroso bihurtuz gero, horrek berak eragin dezakeela aldatzeko beharra ere. Bukatzeko, esan Askagintzan elkarlanean jardun genuenok berak urratutako bidean jarraitzeko konpromisua berresten dugula gaur eta hemen".

OMENALDI EKITALDIA SORABILLAN



Karmen Rodriguezek dantzatu zuen aureskua, hunkituta, Erretoretxean bistaratu zen plakaren aurrean.



Plaka bistatu ostean bertaratutakoek elizara abiatu ziren, txistularien doinupean.



San Martin eliza lepo bete zen mezan. Manuel Oiartzabalek egin zuen ofizioa.



Ana Carrere alkateak eta hainbat herritarrek Goenagaren aldeko mezuak idatzita utzi zituzten.



Mikel Goenagaren ama eta gainerako senideak bertan izan ziren.



Lontxo Oiartzabalek zuzendu zuen omenaldi zibila, hainbat pertsona eta elkarteek emanez hitza.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Miren Martiarenaren agurra



Miren Martiarenak bederatzirte egin ditu zinegotzi lanetan.

Asteartean ez ohiko Udal batzaraldia egin zuten, zeinean **Miren Martiarena** zinegotzi jeltzaleak agurra iragarri zuen. Urnietatik kanpora bizitzera doa eta kargua utziko du. Haren lekua **Manuel Maiozek** beteko du. Hunkituta agertu zen Martiarena. Esker ona adierazi zuen joaterakoan, eta alderdi guztietako kideek egindako lana eskertu zioten.

Kultur jarduera ugari herrian



Antzerki tailerreko kideak larunbat arratsaldean San Juan plazan.

Aurreko larunbatean kultur jarduera ezberdinak antolatu ziren Urnietan. Antzerki tailerreko bufoiaren papera interpretatuz bat-bateko emanaldiak eskaini zituzten herri-

ko kale eta plazatan. Iluntzean, ipuin erotikoen emanaldia izan zen Saroben. Goizean, liburuaren egunarekin bat eginenez, liburuak salgai ipini ziren San Juan plazan.

Inbertsio estrategikoak erabakitzeke bozketa martxan da

Bozkatzeko garaia da

Aurreko asteetan jendaurreko bilerak eta karpa informatiboa ipini eta gero, Urnietako inbertsio estrategikoak bozkatzeko garaia iritsi da. Maiatzaren 9ra bitarteko epea izango da. 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute. Inbertsio bakoitzarekin bideo bana egin dute. QR kodigoan klik eginez gero ikusgai daude.



Udaleku irekiak eta kirol udalekuak uztailean zehar

Udako eskaintza, prest

Udalak 4-12 urte arteko haurrentzat udaleku irekiak eta kirol-udalekuak antolatuko ditu

uztailean zehar, bi txandatan: uztailearen 4tik 15era eta 18tik 29ra. Izena emateko epea za-

balik dago maiatzaren 6ra bitarte, Bertan bulegoan edo Leikaion.

Datorren maiatzaren 20an "Amalur" ikuskizuna Urnietan

Pailazoaren emanaldia

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek "Amalur" ikuskizuna eskainiko dute datorren maia-

tzaren 29an, ostiralarekin. Sarrerak dagoeneko salgai daude Kantoi eta Xauxar tabernatan,

7 euroko prezioan. Ikuskizuna Egape ikastolako jolastoki estalian eskainiko dute.






Udalekuak urnieta

Izena ematea:
Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra
BERTAN bulegoan eta
LEKAIIO kultur etxean.





943 00 80 00
943 00 80 33
udalekuak@urnieta.eus
www.urnieta.eus



Urnietako V. mendi lasterketa

2016ko maiatzaren 1a
urnietakomendilasterketa.com



iturbe
SUKALDEA & ETXEA {1964az geroztik}

Igarategi Industrialdea 70,
Behe solairua. Urnieta.
Bezeroen arreta-telefonoak:
943 552 750 - 688 632 191

*Zure ongizaterako
giroak diseinatzen ditugu*

{Sukaldea} {Egongela}
{Bainugela} {Logela}
{Gazte-gela} {Sofa} {Atsedena}
{Ehun-gaiak} {Dekorazioa}

www.mueblesiturbe.com

Nei
Muebles Kit Altzariak

Igarategi Industrialdea 70,
1 solairua. Urnieta.
Bezeroen arreta-telefonoak:
943 552 754 - 688 632 188

Eraman ezazu behar
duzuna soilik!

Sukalde osoak, armazoiak, ateak,
estalkiak, interiorismoak, etxetresna
elektrikoak, egongelak, logelak,
gazte-gelak, sofa, mahaiak, aulkiak,
altzari osagarriak, atsedena, bulegoa,...

[Eraman eta munta
ezazu zuk zeuk]

Plazan irteera eta helmuga

Urnietako mendi lasterketaren aurtengo edizioak aldaketa nabarmena dakar, herrigunea izango baita lasterketaren abiapuntu eta helmuga. San Juan plazatik abiatuko da Adarra aldeko bidera, ibilbide zoragarria osatuz. Logistika arazoak kontuan hartu dira, orain arte Xoxokan egiten zen lasterketa antolatzailerentzat katramilatsua baitzen.

Ibilbidea luzatu egingo da zertxobait, baina bestalde ikuslegoari eta kanpotik datozenen irisgarritasunari dagokionez abantaila izango da.



Goizeko 09:30ean ibilbide motzeko eta luzeko lasterkariak batera abiatuko dira, eta hortik aurrera bakoitzak bere ibilbidea osatuta helmugara iristea izango du helburu.

Urnietan mendi lasterketa asteburu osoko ospakizuna izango da, larunbatean bigarren haur festa ospatuko baita. Txikienek lasterketa txikiez eta aisialdiko eskaintza zabalaz gozatu ahal izango dute.

Larunbatekoa eta igandekoa, biak ala biak, Super H elkartearen aldeko jarduerak dira. Korrikalari edota ikusle bezala parte hartzeak ekimen solidarioarekin bat egitea dakar.



San Juan plazatik abiatuko da aurtengo mendi lasterketa, amaitu ere bertan egingo da. Bezperan, haur festaren bigarren edizioa ospatuko da.



Ibilbide luzea, fitxa teknikoa

Urnietako mendi lasterketa

Ibilbide luzea:

- Irteera ordua, lekua: 09:30.
- Pilatutako desnibela: 3.400 m.
- Desnibel positiboa: 1.700 m.
- Gehieneko garaiera: 811 m. Adarra mendi.
- Gutxieneko garaiera: 11 m. Erratzuko zubia.
- Helmuga ordua (gutxi gorabehera): 11:30.
- Helmuga: San Juan plaza.

Kronometraie guneak:

- Onddi: 6km.
- Adarra: 10,6km.

- Zaburu: 13,8km.
- Onddo: 15km.
- Besabi: 21km.
- Helmuga.

Hornidura guneak:

- Poxontarriko iturria (4.3 km).
- Antsoko txabola (8.5 km).
- Eteneta (11.1 km).
- Usabelartza (16 km).
- Lizarratxope (19 km).
- Errekabeltz (23 km).
- Helmuga.

Ibilbide laburra Herri bazkaria

Urnietako mendi lasterketa

Ibilbide motza:

- Irteera ordua, lekua: 09:30.
- Desnibel positiboa: 800 m.
- Kadeteek ibilbidea gainerako korrikalariarekin batera bete beharko dute.
- Helmuga: Xoxokan.

Hornidura guneak:

- Poxontarriko iturria (4.4 km).
- Antsoko txabola (8.6 km).
- Errekabeltz (12 km).
- Helmuga.

Urnietako pilotalekuan

txekor jatea

- Bi txekor erreko dituzte lasterketa egunean, eta, aurtengoan, lasterkariak pasta jateaz gain txekorra dastatzeko aukera ere izango dute.
- Bazkaria ez da lasterkariarentzat soilik izango. Antolatzaileek 400 txartel gehiago eskainiko dituzte 4 euroko prezioan. Hartara, lasterkariaren familia kideek edota lagunek lasterketa amaituta Urnietan bertan bazkaldu ahal izango dute. Merke eta on, gainera. Egunean bertan eskratu ahal izango dira bazkarirako txartelak, irteera-helmuga gunean.

Joseba Labaka antolatzailea

Lasterketaren erreferentzia nagusia da, talde lanaren ordezkaria izan arren. Joseba Labaka Urnietako mendi lasterketari erabat lotuta dago. Bosgarren edizioa burutzeko egun gutxi falta direnean, hauexek antolatzailearen usteak eta azalpenak.

Bosgarren ediziora iritsi da mendi lasterketa. Badu, beraz, ibilbide bat. Lasterketa egonkortuta dagoela esan nahi al du horrek?

Joseba Labaka. Antolakuntza aldetik, Urnietako mendi lasterketa egonkortu dela esan genezake, baina aurten aldaketa handiak egon dira. Xoxokatik atera da lasterketa aurreko lau urteetan, eta oraingoan herrigunetik abiatuko da.

Mendiari garrantzia kentzen zaio horrela?

Joseba Labaka. Inondik ere ez. Mendi lasterketa izaten jarraitzen du. Herrigunetan 400 metro egiten dira asfaltoan, eta hortik aurrera pistak edo mendi bideak dira. Eta lasterketaren amaiera aldera, berdin. Beraz, mendiari garrantzia handia ematen diogu. Aldaketa arrazoi logistikoei lotu behar diegu.

2012an ez genuen inondik inora lasterketak horrelako hazkuntza izango zuenik espero, egiari zor, geuk ere hazkunde hori onartu dugu. Baina horrek logistika arazoak sortu dizkigu dutxak eskaintzeko garaian eta aparkalekuak eskaintzeko garaian. San Juan plazatik abiatzea zen alternatibarik egokiena. Herrigunea asfaltatua egotean, errepidea ez zapaltzeko gure zeregina alternatibak bilatzea izan da. Iazko irailean hasi ginen aldaketa aztertzen, eta gauzak horrela, bosgarren edizioa San Juan plazatik abiatuko da.

Ibilbidea horretan geratuko al da etorkizunerako?

Joseba Labaka. Aurtengoa bosgarren edizioa ibilbidea izango da. Lasterketa eta gero aztertuko dugu hartutako erabakiak egokiak izan diren edo ez. Lursail berrietatik igaroko da, eta lurjabe horiek ere ikusi beharko dute lursaila zein egoeratan geratzen den lasterketa pasa eta gero. Aurtengo edizioa amaituta aurtengo bidetik jarraitu ala ez ikusiko dugu.

Lasterketaren hazkunde handia aipatu diguzu...

Joseba Labaka. Urnieta-Adarramendi-Urnieta lasterketak mendi lasterketa gisa aurkezteko gabezia batzuk bazituela ikusi genuen bere garaian. Mendi lasterketen munduan jarraitzeko aldaketak txertatu behar genituen. Adarramendikoak 100 lasterkari inguru zituen, eta mendi lasterketarekin parte hartzea 500 lasterkarira iritsi zen.

Mendi lasterketen loraldia bete-betean hartu zenuten, Lizeaga bezalako lasterkari bikainak herrian bertan...



Joseba Labaka lasterketaren irteera eta helmuga izango den San Juan plazan.

Joseba Labaka. Modan daude mendi lasterketak, eta horrekin batera korrikalari piloak egin du mendi lasterketarako jautzia. Lehen Urnietan dozena erdi lasterkari ibiliko zen, eta aurten 43-44 urnietar izena emanda daude. Gauza bera ondoko herriei begira jartzen bagara. Andoainen lehen 10 irtengo ziren, aurtengorako 40 inguru izango dira. Boom hori aprobetxatzen jakin dugu, Adarramendiko lasterketatik mendi lasterketara pasa gara eta bistan da kirolariak aldaketa oso gustura hartu dutela.

Donostialdeko lasterketa dela esango al zenuke?

Joseba Labaka. Parte hartze datuak ikustea besterik ez dago, hori baieztatzeko. Beterri-Buruntzako parte hartzaileen %65a da. Andoain, Urnieta, Hernani, Donostia... Parte hartzaile gehienak gertuko herrietatik datozkigu.

Urte gutxitan erreferentziatzko lasterketa izatera iritsi zarete, gainera...

Joseba Labaka. Euskal Herriko kopariko puntuagarria izan da, Euskal Herriko txapelketa ere bertan antolatu izan da. Aurten, normala denez, Federazioak beste lasterketa berriei aukera ematea erabaki du. Sumatzen duguna da lasterkariak antolatzaileengan konfiantza badutela, aurten ere ehunka lasterkari irtengo baitira.

Lasterkariarentzat zu zara lasterketaren erreferentzia nagusia. Zer esaten dizute?

Joseba Labaka. Lasterkariaren aldetik ia inork ez du entrenatzen. Denak entrenamendu gutxirekin datoz, gaizki eta gaixorik datoz... Ironiaz ari naiz, noski. Bai-

na erdi ezkutuan ibiltze hori kirolari oso lotuta dago. Nik lasterkari horien begietan gogoia eta poza ikusten dut, herriko lasterketa noiz hasiko zain daudelarik.

Ibilbide berria ikusleentzat abantaila al da?

Joseba Labaka. Ikusleentzat onurak izango ditu. Lehen lasterketaren hasiera eta amaiera ikusteko Xoxokatik ezin zinen gehiegi aldendu. Orain, aldiz, herriari izanik, hasiera ikusi eta kotxean Besabi edo Xoxokara gertura zaitezke. Lasterketa ikusteko toki polit asko dago inguru haietan. Pasaera eta gero, lasterketaren azken metroak ikusteko aukera badago orain.

Ibilbide laburreko lasterketak tokia izaten jarraituko al du etorkizunean?

Joseba Labaka. Hirugarren urtea da, eta hirugarren proba guretzat. Inpresioa dugu ez duela irismen handirik. Egia da lasterketa handira pasatzeko lehen pauso modukoa dela, normalean ibilbide laburra egiten duenak lasterketa handira jautzia egiten duelako.

Ibilbide luzea oraindik gehiago luzatu izanarazorik sortuko al die mendi lasterkariei?

Joseba Labaka. Luzeagoa da, baina ez gogorragoa. Ondo hartu zuten aldaketa ibilbide berria erakutsi genienei. Prestakuntza aldetik justu samar ibili denarentzat aldaketa oso kontuan hartzekoa da, lau kilometro gehiago direlako.

Lortu al duzue probaren izaera solidarioa lasterkariaren artean baneratzeari?

Joseba Labaka. Baietz esango nuke. Bigarren urtez, lasterketaren bezperan Super H festa antolatuko dugu eta iaz, festa horri esker, askoz jende gehiago hurbildu zen dortsala jasotzera. Esango nuke jende asko lasterketaren izaeraz jakitun dela.

Zer esanik ez dago bolondresik gabe ez dagoela lasterketarik.

Joseba Labaka. Ezinbestekoak dira. Haiek gabe ez dago lasterketarik. Lan ikaragarria egiten dute: Mendia garbitu, ibilbidea markatu, anoa guneak antolatu eta bertan egon,... lagun askoren beharra izaten dugu. Ehundik gora izango dira, denera. Aurten, ibilbide aldaketarekin, batek baino gehiagok funtzio ezberdinak beteko ditu. Batzuk mendian lanean egongo dira, eta ondoren helmugara jaitsiko dira laguntza ematen jarraitzera.

Ezin ahaztu Goiburuko auzokideek laguntza handia eman digutela aurreko lau edizioetan. Aurten bi anoa gune izango dira Xoxoka inguruetan, eta auzokideek lan hori egiten jarraituko dute.

Dena ondo irten dadila, beraz...

Joseba Labaka. Saiatuko gara. Aurten, gainera, parte hartzaileek eta ingurukoek Urnietan bertan bazkaltzeko aukera izango dute. Lasterkariarentzat makarroiak prestatu ohi ditugu, baina aurtengoan makarroiak gain, Batzokia elkartekoek bi txekor erreko dituzte eta lasterkariak Udal pilotalekuan eserita bazkaltzeko aukera izango dute. Lasterkariarekin batera bazkaldu nahi dutenentzat 400 txartel salgai jarriko dira 4 euroko prezioan.

Urnietan eguna igarotzeko aukera polita izango da.

ADI WEBGUNE BERRIA urnietakomendilasterketa.com



INSKIPZIOAK
 Datoren urtarilaren setik aurrera V.Urnietako Mendi Lasterketan izena eman dezakezu.
 Apuntatu HEMEN



ORAIN **GIPUZKOA**

Egiteko ordua da, Gipuzkoa aktibatzeke ordua, geuri eta gainerakoei zertarako gai garen erakusteko ordua.

Betidanik egin izan dugu. Historian zehar gauza handiak egin izan ditugu sinetsi eta batu garenean. Berriz egiteko ordua da. Liderrak gara industrian, enpresa-eredu aitzindariak asmatu ditugu, I+G+Bn liderrak gara... gipuzkoarrak gara.

Aberastasunak sortzen badakigu, baina baita banatzen ere. Gure lurraz harro, baina Europara eta mundura zaballik. Tinkotasunean sinesten dugu, baina inoiz ez inposaketan. Esfortzua dugu lelo, baina baita elkartasuna ere. Estatu mailan liderrak gara ongizatean, ekonomian, gizarte justizian eta berdintasunean. Gipuzkoa gara. Eta ez dugu zarata handirik egiten.

Apaltasunez, lan eginez, arduraz aritzea eta errespetuz jokatzeko. Kexak eta aitzakiak alde batera utzi behar ditugu. Frustrazioa iraganean geratu da. Zurikeriak iragana dira. Geldirik egotea iraganeko kontua da. Ezin dugu jarraitu arazoei bueltaka. Hori guztia atzoko gauza da.

Orainari buruz hitz egiteko unea da. Etorkizuna orain da eta etorkizuna erakitzeke erabakiak orain hartu behar ditugu. Gure lurra zaintzea orain da. Elkartasuna orain da. Lan egitea, laguntzea, elkarbizitzari ekitea, adostasuna orain dira.

Orain da Gipuzkoa.
Eta orain gaur da.

Lasterketari ekiteko gogoz



Igor Amantegi
Urnietakoko lasterkaria



Xuban Ezeiza
Urnietakoko lasterkaria



Maialen Gurrutxaga
Andoaingo lasterkaria



Jon Ugalde
Andoaingo lasterkaria

Urnietakoko mendi lasterketa ondo baino hobeto ezagutzen du, eta aurten sasoi-ko dago, "forma aldetik ondo nago. Bizkarreko arazo txikiren bat badut, baina espero dut igandera bitarte osatzea. Ilusio handiarekin nago, nahiz eta herrian gauza batengatik edo bestearengatik ez zaizkidan lasterketa onak atera. Iaz, lasterketaren aurreko gaua txarra pasa nuen eta normala da lasterketa ona ez egitea. Bi urte atzera, nekatu samar irten nintzen astebete lehenago Orioko lasterketan atera nintzelako. Ez ditut sentazio onak izan Urnietakoko lasterketan, ikusiko dugu ea igande honetan zer gertatzen den".

Kementsu ari da prestaketa lanetan, "asteen lau aldiz ateratzen naiz entrenatzera, askotan ez dagoen tokitik denbora ateraz". Gauzak horrela, sasoi-ko dago urnietarra. Kilimon trail lasterketa ezagunean lehen postuetan amaitu baitzuen: "Aurten lau lasterketa egin ditut eta lauretan hogeitau aurrenekoetan sartzea lortu dut". Meritu handiko postua da Kilimonekoa, lasterkariaren maila oso handia baitzen.

Ibilbidea aldatzeko erabakiaren aurrean, logistika arazoak ulertzen baditu ere ibilbide zaharraren aldekoa da, "ibilbide guztia mendian zelako".

Futboleant aritu da bereziki, harik eta bi urte atzera mendi lasterketetan proba egin zuen arte. Orduan Larraulgoa eta Urnietakoa egin zituen. Futbola utzita, orain bi urteko joerari berrekin dio eta Urnietakoko mendi lasterketaren helmugan ezusteko atsegin horietakoa izan daiteke.

Gogotsu dago, hogeitau urte betetzeak ematen duen ilusioarekin: "Futbola utzita, Urnietakoa prestatzeko beste lasterketa batzuetan ere atera gara. Igandekoa, distantziari dagokionez nahi baino luzeagoa da, baina egindako prestakuntzarekin moldatzen ari gara". Serio hartu du, gainera: "Bukatzeko asmoa nuen hasieran, baina egindako lasterketetan espero ez nituen emaitzak lortzen nabil eta horregatik hiru ordutik jaisteko helburuarekin irten-go naiz. Disfrutatzen noa, baita ahalik eta denbora onena egitera ere".

Igandean etxekoan aurrean arituko da lasterketa, eta horrek Xuban are gehiago motibatzen du: "Motibazioa handiagoa da. Mendiak ezagutzen ditugu, askotan ibili gara eta gainera igandean senideak, lagunak eta herrikideak gertu izango ditut. Egia esan, motibazioa handia da".

Lasterketan zehar sentazio pertsonal onak sentitzea eta paraje naturalekin gozatzea. Bi helburu horiek dauzka buruan Maialenek, igandeko. Maialenek badaki zer den asfaltoan lasterketak irabaztea, baina halako kontuak ahaztuta dauzka orain. "Urtebete bada bigarren haurra eduki nuela, eta poliki-poliki ari naiz hartzen iraganean eduki nuen forma ona". Mendira jotzen du azken aldian, errepidera baino gehiago: "hiru mendi lasterketatan hartu dut parte oraindik orain, Pasaian, Loatzon (Amasa) eta Garinen (Beasain), eta aitortu behar dut mendiarekin geroz eta gehiago ari naizela".

Bere bikote Oinatz Gonzalez ere mendi lasterkaria da, eta txandaka dabilta azken aldian, batek korrika egiten duen bitartean, bestea bi umeen zaintzan geratzen da.

Ibilbideari apenas erreparatu zion Maialenek izena emateko orduan: "Gerora jakin dut zenbateko gora-beherak dauzkan, eta baita ere herrian amaitzen dela. Zein denbora egin dezakedan ere ez naiz hasi kalkulatzeko. Egia esan, kirol honekin gozatzeko egokiena ordulariaren menpe ez ibiltzea dela iruditzen zait; mendiko lasterketek aukera hori ematen dizute".

Laugarren aldiz hartuko du parte lasterketan. Euskalduna futbol taldea utzi zuenez geroztik, mendiz mendi lasterketa ibiltzeari ekin zion: "Urtean hamabost bat lasterketetan korritzen dut, eta guztien artean, gogokoena, Tolosakoa (T3T mendi maratonia), Talaiakoa (Donostia-Hondarribia) eta Urnietakoa, hiru horiek direla esango nuke. Aizkorriko maratoiaz aparte, noski".

Normalki, Adarra-Eteneta-Ondi aldean abiatzen da entrenatzera, "ondo baino hobeto ezagutzen ditut paraje haiek. Horko belazeetan aldapan gora eta behera ibiltzea bezalakorik ez dago. Batzuk mendian sufritzen dute belaunetatik, baina niri gogorragoa egiten zait asfaltoko kolpea oinetan. Mendian, sufritu eta gozatu dena gehiago egiten da, baina gutxiago begiratzen zaio ordulariari".

Denborari obsesioz begiratu ez arren, Andoaingo korrikalarien artean onenetarikoak izan da azken hiru urteetan. Sasoi-ko datorrela aitortzen du: "Gustura nabil, lesioek errespetatzen naute oraingoz. Urteak urtera ez naiz ari entrenamenduen intentsitate igotzen, baina iruditzen zait gorputza eta oinak mendiko aldapa eta harrietara ohitzen ari zaizkidala; eskarmentuak balio du zerbaiterako".



Urnietakoko Mendi Lasterketa

herrikide askoren lanaren fruitua

Egun ona igaro, lasterkariak animatuz, ingurugiroa zainduz.

Urnietakoko mendi lasterketa

MAIATZAK 1, IGANDEA

Urnietakoko udala

Haur festa larunbat arratsaldean

Iaztik, mendi lasterketa ez da minbizia duten haurren aldeko ekimen solidario hutsa. Ez da helduen lasterketa soila, zerbait gehiago da. Haurren alde eta haurren parte hartzearekin egiten den ospakizuna. Eta, adi, horrela jarraituz gero mendi lasterketaren pareko ekitaldia izatera irits daiteke eta. Pasa den urtean egin zuten lehen haur festan San Juan plaza txiki geratu baitzen, parte hartzaileen aurreikuspen guztiak gaindituz.



Ez dira helduak korrika eginez gozaten duten bakarrak izango!

BIGARREN LASTERKETA TXIKIA, LARUNBAT ARRATSALDEAN

San Juan plazan, mendi lasterketa irudikatzen duen ibilbidea prestatuko dute. Bere menditxo eta oztopoekin. Ikusgarria, haurrek gozatzeko modukoa. Iazko parte hartze handia ikusita, lasterketa adinaren arabera antolatuko dute.

- 0-3 urte: Ibilbideari itzuli bat.
- 4 urte: Plazan itzuli bat eta ibilbideari beste bat.
- 5 urte: Plazan itzuli bat eta ibilbideari beste bat.
- 6 urte: Plazan itzuli bat eta ibilbideari bi itzuli.
- 7 urte: Plazan itzuli bat eta ibilbideari 2 itzuli.
- 8 urte: Plazan itzuli bat eta ibilbideari 3 itzuli.
- 9 urtetik aurrera: Plazan itzuli bat eta ibilbideari hiru itzuli.

ANIMAZIOA

Paladita eta Pantxineta clown pailazoak, Tiritatxo Irrien Lagunak taldekoa eta SuperH elkarteko kideak giroa alaitzen arituko dira.



Lasterketaren eta haur festaren aurkezpena egin zuten apirilaren 27an.



SUPER H POSTUA

Elkartearekin bat egiteko beste modua euren produktuak eskuratzea da. Larunbateko ekitaldian pultsera berriak eskuragarri izango dira. Pultserez gain, kamisetak, koadernotoxoak, poltsak, txapak,...

ESKULANAK

- Aurpegi margoketa, Txapak, Konfeti jokua, Txikiak margotzeko gunea.

JOKU DINAMIKOAK

- Saskibaloia, Golfa, Twisterra, Txingoa.



SARI BANAKETA, MERIENDA, PUZGARRIAK

Ospakizuna borobiltzeko parte hartzaile guztei diploma banatuko zaie. Txokolatada izango da denentzat, eta jolasen jarraitzeko puzgarriak ipiniko dituzte. Urnietako Super H festara hurbiltzeko hamaika arrazoi daude.

*Azken ordukoa: Larunbat goizetik puzgarriak izango dira probalekuan.

Kontzertu saioa datorren maiatzaren 6an, Zumea plazan

Andoain, Europako Emusik jaialdiaren partaide

Donostia 2016k Musika Eskolen Europako Jaialdia hartuko du eta bertan Andoaingo Musika Eskolako ikasleek parte hartuko dute. Maiatzaren 6an egingo dute kontzertu saioa.

Andoainekin batera, Europako beste 58 herri maiatzaren 4tik 7ra 8.500 ikasleek emango dituzten kontzertuetarako eszenatoki bihurtuko dira. Andoainera lau talde etorriko dira: Alemaniako Velvert eta Salzweden herrietatik, Italiako Empoli Tuscany-tik eta Kataluniako Sant Celoni-tik.

8.500 IKASLEEN TOPAKETA

Inaugurazio ofiziala Illunben izango da ostiral goizean. Hemen goizean atzerriko ikasleek topaketa honetan, lau pieza joko dituzte elkarrekin 8.500 ikasleek: Donostiako Martxa, Txanton Piperrri, Europako ereserkia eta EMUSIKerako espresuki sortutako *Musikatu bizitza*.

Mirari Irurzun zuzendariaren ustez, une garrantzitsua izango da, jende asko biltzeaz gain, atzeritik etorriko direnekin jotzeak xarma berezia ematen duelako: "Horrek ematen dio zentzua musikari. Ez gara ulertuko hitzez, baina elkarrekin joaz ulertuko dugu elkar".

OSTIRAL ARRATSALDEA, UNE GARRANTZITSUA

EMUSIK jaialdiaren baitan, Andoainen kontzertua eskainiko dute Musika Eskoletako ikasleek Zumea plazan, arratsaldeko 17:30ean hasita. "Gure ikasleekin batera, kanpoko lau taldek joko dute. Guztira, 200 lagun inguru bilduko gara". Kanean zehar jotzen hasi eta Zumean eskainiko duten kontzertuarekin amaituko dute.



Esti Mujika zinegotzia eta Mirari Irurzun musika eskolako zuzendaria, Emusik jaialdiaren kartelarekin.

Andoainen kontzertua eskainiko dute Musika Eskoletako ikasleek Zumea plazan, arratsaldeko 17:30ean hasita

Maiatzaren 4an irekiko dute datorren ikasturterako matrikulazioa. Metalezko instrumentuen erabilera sustatu nahi dute

"Taldea gazteak eta indar handikoak dira. Mereziko du ikustera joatea", azaldu dute Mirari Irurzun eta **Esti Mujikak**. Gainera, elkarrekin entsegurik egin gabe joko dute lehen aldiz jendaurrean. "Denek berdinduz ulertzen duten hizkuntza bat da, eta horrek badu bere magia". Musika Eskolan uneotan erabat entzun daitezke abesti horiek eta ikasleak ilusio handiarekin daudela dio Mirarik. Jaialdiaren alderdi "politena" ikasleek arteko elkartzuna dela uste dute: "ondo edo gaizki atera, ikasleentzako esperientzia oso ona izango da".

Azken egunean, maiatzaren 7an (larunbata), itxiera ekitaldia egingo da Zurriolan. Ospakizun jendetsu horretan, ikasleek osatutako Big Band batek joko du jaialdiari amaiera emateko.

MATRIKULAZIO KANPAINA MARTXAN DA

Herrian musikarako "zaletasun handia" dagoela azaldu du Estik. Gaur egun, 400 ikasle baino gehiagok ikasten dute Musika Eskolan. Martxa horri eusteko, EMUSIK jaialdiak gozatzeaz gain, musika ikastera animatu dituzte herriko haur eta helduak. Maiatzaren 4tik 13ra bitarte izango dute izena emateko aukera.

"Metalezko instrumentuak jotzera bultzatu nahi ditugu", nabarmendu dute. Izan ere, instrumentu batzuek besteek baino arrakasta handiagoa izaten dutela eta, gehienetan, metalezkoak atzean geratzen direla aitortu dute. Azken urteetan, musika taldeetan hartu duten oihartzuna kontuan izanda, metalezkoetarako lotura indartu nahi dute.

"Organoa eta lagunak" entzuleen gozagarri



1.636 euro bildu ziren Juneren Hegoak elkartearen alde.

Kontzertu bikaina izan zen "Organoa eta lagunak" izenburuko emanaldia. Bostehundik gora pertsona erakarri zuten San Martin elizara, eta 1.636 euro bildu ziren Juneren Hegoak elkartearentzat. Formatu berritzailea zen la-

runbatekoa, arriskuz betetako, elementu askoren uztartzea eskatzen baitzuen.

Oso pozik agertu ziren antolatzaileak kontzertuaren amaieran. Errepertorio anitza eskaini zen pieza klasiko eta garaikideen eskutik

Karlos Garcari ongi etorria

Ostiral iluntzean ongi etorria egin zioten Karlos Garcari, hamasei urte Euskal Herrikan kanpo igaro ondoren. Absolutua irten zen arren, Urquijo Espainiako gobernuko ordezkariak Andoaingo ongi etorria ikertzea eskatu du.



Ipar Haizea plataforma

Datorren maiatzaren 29rako Gipuzkoako errausketaren aurkako mugimenduak giza katea antolatu du Donostiako Onkologikotik Gipuzkoa plazara. Ipar Haizea plataforma ekimenaren partaide den, herritarrak hartzordu horretan parte hartzea deitu ditu. Ekimen hori finantzatzeko borondatezko diru ekarpe-

nak eskatzen ari dira. Ernaitza liburu denda, Keinu eta Li arropa dendatan egin daiteke ekarpena.

Bestalde protesta koloretsua burutzen ari dira herrian, balkoietan errausketaren aurkako ikurrak ipiniz. Eskuragarri daude, dohainik, Kale Nagusiko Keinu dendan.

Oroituz elkarteak antolatuta ibilbide gidatua



Parte hartzaileetako batzuk Santa Krutz ermitaren parean.

Oroituz elkarteak Errepublikak eta 36ko kolpe militarren lekukotzak azaltzeko ibilbide gidatua antolatu zuen, herrian barrena.

Besteak beste, eraikuntzak, elementu sinbolikoak, kaleak, zubiak. Berriki eskurria plazaratu dute 27 tokiren informazioarekin.

URNIETAKO ETA ANDOAINGO MINTZALAGUNAK



Urnietan mintzalagunek Lekaion sendabelarren inguruko ikas-tarora jaso zuten Lekaion. Usaindu eta dastatu, ukenduak egingen ikasi, Maika Cester izan zen irakaslea.



Andoainen mintzalagunek eta gurasolagunek jarduerari ugarri egin dituzte apirilaren zehar. Tolosako txokolaterearen museora bisitaldia, mintzomerienda eta pintxo tailerra.

“GABON TXIRRITA” ANTZEZLANAREN PROTAGONISTA NAGUSIARI BIZITZA EMANGO DIO

Haritz Zubillagak emango dio bizitza Txirritari

Haritz Zubillaga Astiasaran (Anoeta, 1979) hiru urte zituela Urnietara bizitzera etorri zen, familia osoarekin batera, eta azken lau urte hauetan Zizurkilen bizi bada ere, inoiz ez du herriarekin lotura-

rik galdu. Azken boladan, antzerkigintza alde batera utzita bazuen ere, berriro eszenatokira itzuliko da "Gabon Txirrita" antzezlanarekin. Gogo biziz ari da entsaiatzen irailean taularatuko den obra.



Orain arte zein lan egin dituzu antzele moduan?

Haritz Zubillaga: Egape ikastolan antzerkitxoren bat edo beste egiten bagenuen ere, ez daukat oso gogoan zer egiten genuen. Gero heldutasunean, Urnietara 59 obra izan zen nire lehen lana. Hura bukatutakoan, antzerki tailerlean hasi nintzen, eta han, kurtso bukaerako emanaldi batzuk eskaini genituen. Azkenik, 1936 obran parte hartu nuen.

Txirrita bertsolaria da protagonista. Ezaguna zenuen lehendik?

H.Z.: Bai, bertsolaritza txikitatik gustatu izan zait, beti jarraitu izan dut, "Hitzetik hortzera" telebistako saioaren bidez eta zuzeneko emanaldietan. Etxean ere, beti eduki izan ditugu bertsolaritzaren inguruko liburuak, besteak beste, Txirritari buruz Antonio Zavalak idatzitakoa. Beraz, Txirrita, eta bere mundua ezaguna egiten zait.

Ezaguna zara herrian zure umore onagatik, nola sentitzen zara Txirritaren paperean, identifikatzen al zara berarekin?

H.Z.: Egia esan, oso eroso sentitzen naiz paper honetan. Azkenean, Txirrita parrandero fama zuen bertsolaria izan zen, eta niri ere gustatzen zait, behar denean, parranda egitea, eta bertsoak ere asko. Hala ere, nik ez ditut inoiz pasa bi edo hiru egun tabernatik batera atera gabe, hark egiten zuen moduan, kar, kar, kar.

Txirritaren hainbat bertso kantatu beharko dituzu obra honetan, hori zailtasun erantsi bat izango al da zuretzat?

H.Z.: Hamahiruren bat bertso kantatu beharko ditut bai, eta zalantza daukat doinu guztiak gogoan hartuko ote ditudan,



Haritz Zubillaga, Txirritaren paperean arituko da.

baina, oraindik denboraz nabil. Bestela, bertsoak abesteak ez dit aparteko kezkarik sorrarazten. Koldo Tapia, antzezlan honetan taldekide duguna eta bertsolaritzan aditua denaren laguntza ere jasotzen ari naiz.

Txirritarena orain arte egindako lanik exigenteena al da?

H.Z.: Niretzat bai. Eszena guztiguztietan, obraren hasieratik bukaeraraino agertokian presente egongo naiz. Azkenean, esaldi bakoitza noiz sartu behar dudana jakiteko ia-ia obra guztia buruz ikasi beharko dut.

Zizurkilen bizi zara. Nola moldatzen zara entsaioekin?

H.Z.: Egia esan, topera nabil. Aste honetan, adibidez, hiru egunetan izan dut entsaioa eta denbora libre guztia okupatuta daukat. Kirolean ere banabil, triatleta moduan, eta horrek ere entrenamendu ordu asko eskatzen baitit.

Orduan, parrandarako denbora askorik gabe zabilta...

H.Z.: Horrela da, oraintxe bertan, parranda-giroa alde batera utzita daukat.

Antzezlanaren talde lana izanik, nola ikusten dituzu taldekideak ?

“Oso eroso sentitzen naiz paper honetan. Azkenean, Txirritaz parrandero fama zuen bertsolari bat izan zen, eta niri ere gustatzen zait, behar denean, parranda egitea, eta bertsoak ere asko”

Nolako Txirritarekin aurkituko da ikuslea?

H.Z.: Antzerki obra honetan agertzen den Txirrita, batez ere, pikaro-parrandero-alper moduan hartutako pertsonaia da, bere alderdirik "txarrenak" agerian jarriz edo nabarmenduz. Eta berak bazituen beste ezaugarri batzuk obra honetan azaleratu gabe geratuko direnak.

Aipatu iezaguzu Txirritaren beste alderdiren bat...

H.Z.: Txirritak ez omen zekien idazten, eta bere bertsoak papepera bere iloba batek pasatzen omen zizkion. Iloba horri esker iritsi zaizkigu Txirritaren horrenbeste bertso. Garaiko gai sozialei buruz oso informatuta zegoen gizona zen, eta hori dela eta ez zen soilik Gipuzkoan ezaguna, Euskal Herri osoan, eta gure mugetatik kanpo ere nahiko ezaguna egin omen zen. Gerraren hasiera hartan, esaten

zutenez, Francoren tropak ere bere bila joan omen ziren, hila-bete eta erdi aurretik hila zela jakin gabe, nonbait.

Antzerkiak zer ematen dizu?

H.Z.: Orain, egia esan, kirol munduan oso murgilduta nabil. Eta horregatik antzerki tailerra utzi egin nuen. Obra hau gustura hartu dut, gustatzen zaidan gaia delako, baina, denbora asko kentzen dit eta presaka eta korrika ibili behar izaten dut batetik bestera. Halare, taldeko jendearekin oso ondo moldatzen naiz, eta antzerkia eginez ondo pasatzen dudala ezin uka.

Nola konbentzitu zenuen herritarrek obra hau ikustera etortzeko?

H.Z.: Bertsolaritza eta euskal kultura oro har garai batean nola izan zen eta orduko bertsolarien mundua, sagardotegietako giroa, eta abar, obra honetan ondo islatuta daudela esango nuke. Txirrita, azken finean hemen gure inguruko pertsonaia zen eta interesgarria dela iruditzen zait haren bizitza eta ibilerak ezagutzea.

Kirola aipatu diguzu, zertan zabilta orain?

H.Z.: Hirugarren urtez triatloia egiten ari naiz, baina, negu partean triatloi frogarik egoten ez denez, duatloiak eta mendiko lasterketak egiten aritzen naiz, eta iaz baino hobeto sentitzen ari naiz. Egin berriak dituk Orioko eta Zestoako mendi lasterketak, Sopelako duatloia, Ernioko igoera.

Urnietako mendi lasterketan parte hartuko dut. Mikel Legarreta lehengusuarekin batera ibiltzen naiz, hark dena kontrolatzen du eta. Urnietan ere, azken urteetan zaletasun handia sortu da, Jokin Lizeaga bezalako figura batek asko lagundu du horretan, eta ikusi besterik ez dago zenbat jende dabilen mendiko lasterketan. Zantpatuz mendi taldea ere sortu berri da. Pozgarria.



Eneko Salaberria, Nahiko Arraiza, Andoni Mujika, Alba Cabrera, Jon Iturbe eta Imanol Ansa. Gabon Txirrita obran antzele lanetan ariko dira.

902 100 040
gipuzkoa.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

ERRENTA2015

ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenez, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoltza zugar Inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
URTEKO AURREKONTUA

812M€

